

# IRAKURKETA PLANA BARRUTIA IKASTETXEA



## AURKIBIDEA

- **TESTUINGURATZEA**
- **IKASTETXEAREN IBILBIDEA IRAKURKETARI LOTUTAKO PROIEKTUETAN**
  - EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
  - HIZKUNTZA PROIEKTUA
  - HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA
  - ELEANIZTASUNERANTZ PROIEKTUA
- **IKASTETXEAREN IRAKURKETA PLANA: JARDUERA ARDATZAK**
  - 2018-2019 IKASTURTEAN: IKASTEKO IRAKURRI.ULERMENA HOBETZEKO ESTRATEGIAK GELAN.
  - 2019-2020 IKASTURTEAN: IRAKURZALETASUNA SUSTATU GELAN, LIBURUTEGIAN ETA INGURUAN.
  - 2020-2021 IKASTURTEAN:HIZKUNTZEN TRATAERA INTEGRALA ETA INTEGRATUA GELAN.
- **IKASTETXEAREN IRAKURKETA PLANA: JARDUERA ARDATZEN EBALUAZIOA**
- **2018-2019 IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)**
  - IKASTEKO IRAKURRI.ULERMENA HOBETZEKO ESTRATEGIAK GELAN.
- **2019-2020IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)**
  - IRAKURZALETASUNA GELAN,ESKOLAN ETA ESKOLATIK KANPO
  - GOZAMENA EBALUATZEKO INDIKADOREAK
  - ZALETASUNA EBALUATZEKO INDIKADOREAK
  - LIBURUTEGIKO PROTOKOLOA

## TESTUINGURATZEA

Barrutia LHI Busturialdean kokatuta dagoen ikastetxea da eta eskualdeko hamabi herri desberdineko ikasleak ikastetxe honetara datoz: Arratzu, Ajangiz, Ea, Errigoiti, Gernika, Ibarrangelua, Elantxobe, Mendata, Ereño, Kortezubi, Nabarniz eta gure eremukoak ez direnak Forua hain zuzen. Horrez gain ,irakasle guztien bizilekua eskualde honetan ere kokatua egoteak, eskolako funtzionamendurako eragina handia du.

Eskualde honetan euskaraz hitz egiteaz gain euskaraz bizitzea gure indargunea da, biztanle gehienak euskaldunak dira eta horrek gure eguneroko bizitzan du eragina: gure jarrerak, pentsaerak eta harremanak euskararekin estuki lotuta daudela kontuan hartu behar dugu.

Barrutia ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara da eta egoera guztietan erabiltzen da, bai ikasgelan, baita ikasgelatik kanpo ere.

Gaztelania ikasgai gisa lantzen da.

Ingelesa ikasgai gisa lantzeaz gain, Natur zientzia arloa eta arte hezkuntzako tailer bat ere ingelesez ematen da laugarren mailatik aurrera.

## IKASTETXEAREN IBILBIDEA IRAKURKETARI LOTUTAKO PROIEKTUETAN

Ikasturtez ikasturte, ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko helburuari lotutako hainbat jarduera egin dira gure ikastetxean. Horietako ekimen batzuk elkarri lotuta egon ez badira ere, garrantzitsua da hona ekartzea Irakurketa Plana egiteko izan ditzaketen eragina dela eta.

### 1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2015eko **Ebaluazio diagnostikoan** gure ikasleek izandako emaitzei erreparaturik, ikastetxeak honako **ekimen** hau abiarazi zuen Hobekuntza Planean:

- Irakurketa lantzeko plana egitea

Plan honen helburuak honako hauek izan ziren :

- Testuaren informazioa eskuratu eta bere osotasunean ulertu, arlo eta hizkuntza guztietan.
- Testuen ezaugarriak ezagutu
- Ahoskera formal, intonazio egokia landu ikasleen irakurtzeko gaitasuna eta zaletasuna hobetzeko.
- Irakurketa, ulermena eta mintzamina hobetu.

- Elkarrekiko errespetua landu.
- Irakurzaletasuna garatu
- Kontzientzia fonologikoa garatzea, irakurketan aurrerapausoak emateko eta irakurtzeko prozesua errazteko

Ekimen horrek honako jarduera hauek garatzea ekarri zuen:

- Testu ezberdinen irakurketa.
- Ziklo bakoitzarentzat testu bankua sortu (era askotako testuak, umeentzat erakargarriak izan daitezkeenak)
- Irakurketari egunero denbora tarte finkoa eman. Tarte honetan ataza desberdinak landu, ahoz gorako irakurketari lehentasuna emanez (irakasle-ikasle)
- Tertulia dialogikoak
- Liburutegia dinamizatu
- Kontzientzia fonologikoa lantzea HHn

## **2. HIZKUNTZA PROIEKTUA**

Ikasturte hauetan eskolako hizkuntzen presentziak jasan duen aldaketaren ondorioz, (HMH 2011/2014 eta Eleaniztasunerantz 2014/16) eta “Heziberri 2020” dokumentuak zabaltzen duen bideari helduz, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektu berria egiten ari gara.

Egun, gure hezkuntza sistemak elebitasuna sendotzea du erronka eta horrez gain, ikasle eleaniztunak lortzea, beren irteera profilean bizitzako eremu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz egoki eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasun nahikoa izango dutenak eta horrez gain, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, gai izango direnak esparru akademikoan, pertsonalean eta gizarte esparruetan modu egokian komunikatzeko.

Erantzun hori zehazteko tresna Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua da, gogoeta bidez eta erabaki adostuen bidez, alderdi didaktiko-metodologikoei zein antolaketari dagozkien alderdietan eragiteko tresna, hain zuzen.

## **3. HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA**

Barrutia H.I eskola 1997-1998. ikasturtean murgildu zen Hizkuntz Normalkuntza Proiektuan; urte hauetan zehar egin diren ekintzak badoaz fruituak ematen eta emaitza desberdinak ikus daitezke eskolako hizkuntz trataera eta erabileran. Aurreko lau urteko proiektuan (2014-2018) hizkuntzaren kalitatea zaintzea nabarmendu zen helburu nagusi bezala; eta antolatutako jarduera eta diseinatutako pausuak jarraituz helburua bete dela esan dezakegu, nahiz eta hurrengo urteetara begira helburu hau mantenduko dugun.

2018-2022 Normalkuntza proiektuan hainbat jarduera diseinatu dira euskararen kalitatezko erabilera eskolako partaide guztien artean bermatzeko. Baina euskara ama hizkuntza bezala ez dutenek eta etorkinek euskararekiko balorazio positibo eta gero eta erabilera egokiagoa izan dezaten ere jarduerak pentsatuko dira.

Laburbilduta ikasleekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Ikasgeletan euskararen erabilera bultzatzea,berdinen arteko interakzio didaktikoa ere euskaraz izan dadin.
- Ikasleengan euskararen aldeko jarrera eragilea bultzatzea.
- Ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna hobetzea.
- Ikasleen idatzizko komunikazio gaitasuna hobetzea.
- Sare sozialetako euskararen erabileraren inguruan hausnarketa egitea behar diren neurriak hartzeko.
- Jolasaldietan ikasleengan, baina batez ere ikasle nagusiengan euskara bultzatzeko motibazio kanpainak bultzatzea.

Helburu hauek lortzeko ikasleekin motibazio,hausnarketa eta trebatze jarduerak egingo dira.

Irakasleei dagokionez ondorengo helburu hauek aurreikusten dira:

- Irakasle guztiengan euskara irakasle direnaren kontzientzia zabaltzea.
- Irakasleen prestakuntzan kalitatezko euskara bermatzea.
- Irakasleek familien egoera linguistikoa ezagutu eta ulertzeko gogoia zabaltzea, ondorioz hauek euskararen aldeko jarreran barneratzeko.
- Ikasleekin euskararen erabilera bermatzeko irizpideak finkatzea.

#### **4.ELEANIZTASUNERANTZ PROIEKTUA**

Ingelesari dagokionez, Barrutia eskolak Ingeles goiz eta Inebi proiektuetan parte hartu du , bietan zentro pilotua izanik.

#### **Hizkuntza Marko Hirueleduna**

2011-2014 ikasturteetan zehar, Barrutia LHI HMM proiektuan murgilduta egon zen, Ikastetxeak HMM II deialdian zentro pilotu moduan parte hartu zuen.

## IKASTETXEAREN IRAKURKETA PLANA- JARDUERA ARDATZAK

Irakurketaren inguruan ikastetxeak egin duen ibilbidea eta hartutako akordioak aztertuta, auto-diagnostikoa egin dugu, egun, gure ikastetxeak dituen premiei erantzuteko. Ondorio gisa, ikusi dugu Irakurketa Plana eraginkorra izango bada, erabakiak martxan jarri behar ditugula eta aldi bereko praktikari lotu behar dugula ezinbestean. Beraz, hiru urteko epealdian gure lanaren ardatz bihurtuko da. Horrela, lehenengo ikasturtean hartuko diren erabakiek hurrengo ikasturteetako lanaren bidez indartu eta sendotuko dira.

Irakurzaletasuna sustatzeak eta ikasteko helburuz egiten den arlo eta ikasgaietako irakurketak berebiziko garrantzia dute, baina, batez ere, bigarrenak du erabateko lotura eskolako helburu nagusiarekin, ikastearekin eta horrez gain, irakasle guztien arteko kohesio-elementua da. Bestalde, jarduera-ardatz horri eman zaio lehentasuna gure hobekuntza planean eta hizkuntza proiektuan.

Beraz, Ikastetxearen ibilbidea eta sarreran jaso ditugun erabakiak kontuan hartuta, honako jarduera-esparruei ekiteko erabakia hartu dugu:

- 2018-2019 ikasturtean: Ikasteko irakurri.Ulrmena hobetzeko estrategiak gelan.
- 2019-2020 ikasturtean: Irakurzaletasuna sustatu gelan, liburutegian eta inguruan.
- 2020-2021 ikasturtean:Hizkuntzen trataera integrala eta integratua gelan.

### Helburuak

#### **Ikasteko irakurri.Ulrmena hobetzeko estrategiak gelan.**

- Irakasleei formazioa ematea ikasleen irakurketaren ulrmena hobetzeko estrategien inguruan.
  - Arlo ezberdinetako irakasleak trebatu gelarako material egokiak sortzen ulrmena lantzeko.
  - Ulertzeko erabiltzen diren estrategien ezaugarriak ahozko eta idatzizko testuetan
  - Ulrmena lantzeko testuen aukeraketa arloetako beharrak kontuan hartuta
  - Ulrmena lantzeko sekuentzia didaktikoen diseinua: gelarako materialak sortzen
  - Ebaluazioa: gelako diagnostikoa eta ikasle bakoitzaren jarraipena nola egin
- Irakasleen artean erabakiak hartzea gela barruan testuen irakurketa-jarduerak modu koherentean lantzeko.

### **Irakurzaletasuna sustatu gelan, liburutegian eta inguruan.**

- Irakasleei formazioa ematea irakurzaletasuna sustatzearen helburua zertan den argi izateko eta zaletasun hori eskolan bultzatzeko jarduerak ezagutzeko eta prestatzeko .
  - Irakurtzeko ohitura vs Irakurtzeko gogoia
  - Nola jakin zein literatura (liburuak, testuak, produktuak) aukeratu irakurzaletasuna bultzatzeko.
  - Zer egin eskolan literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko.
  - Proposamen baten diseinua.
- Irakurzaletasuna ikasgelan modu koherentean garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea, askotariko erabilera-eremuko testuen eta, batez ere literatura esparruko irakurketari dagokionez.
- Liburutegia modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa idaztea, formatu digitalean eta paper formatuan, askotariko erabilera-eremuko testuak, batez ere, literatura eremukoak irakurtzeko gune apropos gisa.
- Berrikustea ikasgeletako eta liburutegiko irakurketa-baliabideak eskolan jorratzen diren hizkuntzetan idatziak eta haiek gaurkotzea, webguneek eskaintzen dituzten baliabideak eta eskolako gainontzeko hizkuntzak ere kontuan harturik.
- Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.
- Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea askotariko testuak irakurtzeko, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera.

### **Hizkuntzen trataera integrala eta integratua gelan.**

- Hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren oinarriak aplikatuz hezkuntzan landu beharreko edukiak mailakatu .
  - Hizkuntzen Trataera Bateratuaren oinarri psikolinguistikoak: hizkuntzen arteko interdependentzia.
  - Hizkuntz edukiak sekuentziatzeko oinarriak.
  - Oinarri diskurtsiboak kontuan izanez hizkuntzen ikas prozesuan landu beharreko edukiak aukeratu, azken emaitzan aplikatuz.

## Jarduerak

**Jarduera-ardatza:** Ikasteko irakurri.Ulmerena hobetzeko estrategiak gelan.

- **Helburua:** Irakasleei formazioa ematea ikasleen irakurketaren ulmerena hobetzeko estrategien inguruan.

Jarduerak (2018-2019 Ikasturtea)	Denboralizazioa eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Klaustrokideekin irakurketaren ulmerena hobetzeko estrategiak lantzeko eta planifikatzeko prestakuntza.	Urrian. Zuzendaritza taldea eta Batzorde Pedagogikoa.	BAMeko formazioa	Formazio saioak egin dira. Irakasle guztiek hartu dute parte formazio saioetan. Irakurketaren ulmerena lantzeko estrategiak planifikatu dira.

- **Helburua:** Irakasleen artean, zikloka, erabakiak hartzea gela barruan testuen irakurketa-jarduerak modu koherentean lantzeko.

Jarduerak (2018-2019 Ikasturtea)	Denboralizazioa eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Hitz egin ziklo bileretan irakurketa-prozesuaren faseen inguruan, arlo eta ikasgai guztietan, eta aukeratu fase horiek bideratzeko jarduerarik egokienak.	Azaroa,abendua, urtarrila eta otsaila.Zuzendaritza taldea , Batzorde Pedagogikoa,zikloak eta arloko irakasleak.	BAMeko formazio saioak.	Erabakiak hartu dira ziklo eta arlo/ikasgai bakoitzean irakurri aurretik, bitartean eta ondoren egin daitezkeen jardueren inguruan.



- **Jarduera-ardatza:** Irakurzaletasuna sustatu gelan, liburutegian eta inguruan.
- **Helburua:** Irakasleei formazioa ematea irakurzaletasuna sustatzearen helburua zertan den argi izateko eta zaletasun hori eskolan bultzatzeko jarduerak ezagutzeko eta prestatzeko .

<b>Jarduerak (2019-2020 Ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Irakasleei formazioa ematea irakurzaletasuna sustatzearen helburua zertan den argi izateko eta zaletasun hori eskolan bultzatzeko .	Urrian eta azaroan. Zuzendaritza taldea eta Batzorde Pedagogikoa.	BAMeko formazioa	Formazio saioak egin dira. Irakasle guztiek hartu dute parte formazio saioetan.

· **Jarduera-ardatza:** Irakurzaletasuna sustatu gelan.

· **Helburua:** Irakurzaletasuna ikasgelan modu koherentean garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea, askotariko erabilera-eremuko testuen eta, batez ere literatura esparruko en irakurketari dagokionez.

<b>Jarduerak (2019-2020 Ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Zikloetan aukeratu irakurketa-jarduerarik eta materialik egokienak eskolan lantzen diren hizkuntzetan.	Urria/Azaroa Ziklo koordinatzaileak	Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko jarduera-bankua Liburu hautatuak ABIES baliabideak	Ziklo eta arlo zein ikasgai guztietan egin daitezkeen jarduerak hautatu dira irakurzaletasuna sustatze aldera. Aukeratu dira eskolan landu eta ikasten diren hizkuntzetan burutuko diren jarduerak irakurzaletasuna sustatze aldera . Irakurgaiak aukeratu dira hizkuntza guztietarako eta ziklo guztietarako.
Gelara eraman eta bertan burutu aukeratutako jarduerak edo berariaz diseinatutako beste batzuk.	Urtarriletik maiatzera. Tutoreak edo irakasleak	Irakurgaiak, webguneak... eskolan landu eta ikasten diren hizkuntzetan idatziak Jardueren dossierra	Irakurtzera bultzatzeko jarduerak burutu dira gelan hizkuntzakoak ez diren arloetan. Euskarazko, gaztelaniazko zein ingelesezko liburuen irakurketa bultzatu da askotariko irakurketa jardueren eta moduen bidez (boz gorakoa, dialogikoa...)
Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak	Ekaina	Ebaluazio-	Tutoreek ebaluazio-txantiloak bete dituzte.

ebalatu eta haien eragina aztertu ikasleen irakurtzeko kompetentziaren garapenean.	Zikloko tutoreak.	txantiloiak	Galdetegiak ikasleei pasa eta pixkanaka irakurketara hurbiltzen ari direla egiaztatu dugu.
--	-------------------	-------------	--

### Jarduera-ardatza. Irakurzaletasuna garatu eskola liburutegian

- **Helburua:** Liburutegia modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa idaztea, formatu digitalean eta paper formatuan, askotariko erabilera-eremuko testuak, batez ere, literatura eremukoak irakurtzeko gune apropos gisa.

Jarduerak (2019-2020 ikasturtea)	Denboralizazioa eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Bildu eta aztertu indarrean dauden zenbait protokolo eta idatzi liburutegia erabiltzeko proposamena.	Irailean/Urrian, Liburutegiko arduraduna	Hainbat eskola zein udal liburutegitako protokoloak.	Proposamena idatzi da.
Protokoloa adostu eta idatzi da klaustrokideekin.	Irailean/Urrian Liburutegiko arduraduna eta irakasle kalustroa.		Eskola liburutegia erabiltzeko protokoloa aurreikusitako epearen barruan idatzi da.
Liburuak mailegatzeko sistema ezarri eskola liburutegiaren eta ikasgelen artean.	Irailean/Urrian Liburutegiko arduraduna eta irakasleak.		Araudi xume bat egin da liburutegiaren eta ikasgelen arteko liburu-maileguak bideratzeko.
Martxan jarri eskola liburutegia erabiltzeko protokoloa eta liburuak mailegatzeko sistema.	Azarotik maiatzera, irakasleak		Eskolako liburutegia erabiltzeko protokoloak eta mailegatzeko sistemak hobetu egin du haren funtzionamendua.

**Jarduera-ardatza:** Irakurzaletasuna garatu eskola liburutegian

**Helburua:** Berrikustea ikasgeletako eta liburutegiko irakurketa-baliabideak eskolan jorratzen diren hizkuntzetan idatziak eta haiek gaurkotzea, webguneez eskaintzen dituzten baliabideak eta eskoletan dauden gainontzeko hizkuntzak ere kontuan harturik.

<b>Jarduerak (2019 -2020 ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Txantiloia egin ikasgelako eta liburutegiko irakurketa-baliabideak aztertu eta beharrianak antzemateko.	Urrian Liburutegiko arduraduna		Aurreikusitako epean egin dira analisirako txantiloiak.
Eskolako hizkuntzetan idatzitako irakurketa-liburuak erosteko aurreikuspena egin, batez ere euskarako irakurketa materialena, eta aurrekontu doitu atondu.	Abendua. Liburutegiko arduraduna eta irakasleak	Ziklo bakoitzeko dokumentuak eta liburutegikoak, beharrianak zehaztuz.	Aurrekontua egin da eta epeak zehaztu dira materialak gaurkatzeko.
Hizkuntzen aniztasunari dagokionez, eskolako beste hizkuntzetan idatzitako liburuen irakurketa-baliabideak erosteko aurreikuspena egin.	Liburutegiko arduraduna eta irakasleak	Literatura katalogo eleanitzak	Hizkuntza desberdinetako irakurgaien zerrenda egin da Aurrekontu egokia egin da.
Liburutegiko materiala gaurkotu.	Urtarrilean hasita. Liburutegiko arduraduna, zikloak.	Aurrekontua Finantzazio iturriak ( udala, familiak...)	Urtero gaurkotzen dira pixkanaka liburutegiko eta geletako irakurketa-baliabideak.

Liburuak mailegatzeko sistema ezarri eskola liburutegiaren eta ikasgelen artean.	Urtarrila. Irakurketa Planaren koordinatzailea, liburutegiko arduraduna eta koordinatzaileak		Araudi xume bat egin da liburutegiaren eta ikasgelen arteko liburu-maileguak bideratzeko.
--	--	--	---

**Jarduera-ardatza:** irakurzaletasuna garatu familian

**Helburuak:** Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.

<b>Jarduerak (2019 -2020 ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Gomendio zerrenda idatzi (jarduerekin, materialekin...) familiek euren seme-alabei lagun diezaieten irakurtzeko zaletasuna garatzen.	Ikasturtean zehar. Batzorde pedagogikoa.	Klaustroak adostutako jarduera protokoloa. Materialen analisia.	Gomendioen zerrenda egin da. Banandu dira gomendioen zerrendak.

**Jarduera-ardatza:** Irakurzaletasuna garatu eskola ingurunean

**Helburua:** Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea, askotariko testuak, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak lantzeko, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera.

<b>Jarduerak (2019 -2020 ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Irakurzaletasuna sustatzen lagun dezaketen inguruneko erakundeekin harremanetan jarri eta garatzen dituzten jardueren inguruko informazioa eskatu.	Iraila-ekaina Batzorde pedagogikoa.	Erakundeek bidalitako informazioa.	Hainbat erakundetako Informazioa jaso da.
Dossiera egin ingurunean garatuko diren irakurzaletasuna sustatzeko jarduerekin eta sailkatu jarduera horiek interesgarritasunaren arabera eta ikastetxearen eta familien inplikazioaren arabera.	Iraila-ekaina Batzorde pedagogikoa.		Dossiera egin da eta bertan jarduerak sailkatuta daude.
Inguruan garatuko diren jardueren artean aukeratu ikastetxeak parte hartu eta bultzatuko dituenak.	Iraila-ekaina Batzorde pedagogikoa.	Ikastetxeak egindako jardueren dossiera.	Ikastetxeko etapek eta zikloek, inguruan antolatu diren irakurzaletasuna garatzeko ekimenetan hartu dute parte.
Familiei jakinarazi zein ekimen antolatu diren inguruan eta animatu esperientzia horietan parte hartzera.	Iraila-ekaina tutoreak	Ohiko komunikazio moduak:emaila,oharrak,facebook	Familiei jakinarazi zaie zeintzuk diren parte hartzeko aukera ematen duten inguruan antolatutako ekimenak.

**Jarduera-ardatza: Hizkuntzen trataera integrala eta integratua gelan.**

· **Helburua:** Hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren oinarriak aplikatuz hezkuntzan landu beharreko edukiak mailakatu .

<b>Jarduerak (2020-2021 Ikasturtea)</b>	<b>Denboralizazioa eta arduradunak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Ebaluazioa: adierazleak eta datak</b>
Klaustrokideekin Hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren oinarriak aplikatuz hezkuntzan landu beharreko edukiak mailakatzeko formazioa.	Urrian. Zuzendaritza taldea eta Batzorde Pedagogikoa.		Formazio saioak egin dira. Irakasle guztiek hartu dute parte formazio saioetan.
Ziklo bileretan,oinarri diskurtsiboak kontuan izanez, hizkuntzen ikas prozesuan landu beharreko edukiak aukeratu, azken emaitzan aplikatuz.	Azaroa-ekaina Batzorde Pedagogikoa,zikloak eta arloko irakasleak.		Erabakiak hartu dira ziklo eta arlo/ikasgai bakoitzean landu beharreko edukien inguruan. Hartutako erabakiak aplikatu dira.

## IKASTETXEAREN IRAKURKETA PLANA- JARDUERA ARDATZEN EBALUAZIOA

<b>Jarduerak (2018-2019 Ikasturtea)</b> <b>URRIAN</b>	<b>Jarduera-ardatza:</b> Ikasteko irakurri.Ulermena hobetzeko estrategiak gelan. <b>Helburua:</b> Irakasleei formazioa ematea ikasleen irakurketaren ulermena hobetzeko estrategien inguruan.		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Klaustrokideekin irakurketaren ulermena hobetzeko estrategiak lantzeko eta planifikatzeko prestakuntza.			

<b>Jarduerak (2018-2019 Ikasturtea)</b> AZAROA, ABENDUA, URTARRILA ETA OTSAILA.	<b>Jarduera-ardatza:</b> Ikasteko irakurri.Ulermena hobetzeko estrategiak gelan. <b>Helburua:</b> Irakasleen artean, zikloka, erabakiak hartzea gela barruan testuen irakurketa-jarduerak modu koherentean lantzeko.		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Hitz egin ziklo bileretan irakurketa-prozesuaren faseen inguruan, arlo eta ikasgai guztietan, eta aukeratu fase horiek bideratzeko jarduerarik egokienak.			



<b>Jarduerak (2019-2020 Ikasturtea)</b> URRIAN ETA AZAROAN	<b>Jarduera-ardatza:</b> Irakurzaletasuna sustatu gelan, liburutegian eta inguruan. <b>Helburua:</b> Irakasleei formazioa ematea irakurzaletasuna sustatzearen helburua zertan den argi izateko eta zaletasun hori eskolan bultzatzeko jarduerak ezagutzeko eta prestatzeko .		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Irakasleei formazioa ematea irakurzaletasuna sustatzearen helburua zertan den argi izateko eta zaletasun hori eskolan bultzatzeko .			

<p><b>Jarduerak (2019-2020 Ikasturtea)</b> <b>URRIA-EKAINA</b></p>	<p><b>Jarduera-ardatza:</b> Irakurzaletasuna sustatu gelan. <b>Helburua:</b> Irakurzaletasuna ikasgelan modu koherentean garatzeko irakasleen arteko erabakiak adostea, askotariko erabilera-eremuko testuen eta, batez ere literatura esparruko irakurketari dagokionez.</p>		
	<p><b>Betetze maila</b></p>	<p><b>Alderdi positiboak</b></p>	<p><b>Hobetzeko proposamenak</b></p>
<p>Zikloetan aukeratu irakurketa-jarduerarik eta materialik egokienak eskolan lantzen diren hizkuntzetan.</p>			
<p>Gelara eraman eta bertan burutu aukeratutako jarduerak edo berariaz diseinatutako beste batzuk.</p>			
<p>Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak ebaluatu eta haien eragina aztertu ikasleen irakurtzeko kompetentziaren garapenean.</p>			

<b>Jarduerak (2019-2020 ikasturtea)</b> <b>IRAILA-MAIATZA</b>	<b>Jarduera-ardatza. Irakurzaletasuna garatu eskola liburutegian</b>		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Bildu eta aztertu indarrean dauden zenbait protokolo eta idatzi liburutegia erabiltzeko proposamena.			
Protokoloa adostu eta idatzi da klaustrokideekin.			
Liburuak mailegatzeko sistema ezarri eskola liburutegiaren eta ikasgelen artean.			
Martxan jarri eskola liburutegia erabiltzeko protokoloa eta liburuak mailegatzeko sistema.			

<b>Jarduerak (2019 -2020 ikasturtea)</b> <b>URRIA-MAIATZA</b>	<b>Jarduera-ardatza:</b> Irakurzaletasuna garatu eskola liburutegian <b>Helburua:</b> Berrikustea ikasgeletako eta liburutegiko irakurketa-baliabideak eskolan jorratzen diren hizkuntzetan idatziak eta haiek gaurkotzea, webguneek eskaintzen dituzten baliabideak eta eskoletan dauden gainontzeko hizkuntzak ere kontuan harturik.		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Txantiloia egin ikasgelako eta liburutegiko irakurketa-baliabideak aztertu eta beharrianak antzemateko.			
Eskolako hizkuntzetan idatzitako irakurketa-liburuak erosteko aurreikuspena egin, batez ere euskarako irakurketa materialena, eta aurrekontu doitua atondu.			
Hizkuntzen aniztasunari dagokionez, eskolako beste hizkuntzetan idatzitako liburuen irakurketa-baliabideak erosteko aurreikuspena egin.			
Liburutegiko materiala gaurkotu.			
Liburuak mailegatzeko sistema ezarri eskola liburutegiaren eta ikasgelen artean.			

<b>Jarduerak (2019 -2020 ikasturtea)</b> <b>IKASTURTEAN ZEHAR</b>	<b>Jarduera-ardatza:</b> irakurzaletasuna garatu familian <b>Helburuak:</b> Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Gomendio zerrenda idatzi (jarduerekin, materialekin...) familiek euren seme-alabei lagun diezaieten irakurtzeko zaletasuna garatzen.			

<b>Jarduerak(2019-2020 ikasturtea)</b> <b>IRAILA-EKAINA</b>	<b>Jarduera-ardatza:</b> Irakurzaletasuna garatu eskola ingurunean <b>Helburua:</b> Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea, askotariko testuak, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak lantzeko, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera.		
	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Irakurzaletasuna sustatzen lagun dezaketen inguruneke erakundeekin harremanetan jarri eta garatzen dituzten jardueren inguruko informazioa eskatu.			
Dosierra egin ingurunean garatuko diren irakurzaletasuna sustatzeko jarduerekin eta sailkatu jarduera horiek interesgarritasunaren arabera eta ikastetxearen eta familien inplikazioaren arabera.			
Inguruan garatuko diren jardueren artean aukeratu ikastetxeak parte hartu eta bultzatuko dituenak.			
Familiei jakinarazi zein ekimen antolatu diren inguruan eta animatu esperientzia horietan parte hartzera.			

<b>Jarduerak (2020-2021 Ikasturtea)</b> <b>URRIA -EKAINA</b>	<b>Jarduera-ardatza: Hizkuntzen trataera integrala eta integratua gelan.</b> <b>Helburua:</b> Hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren oinarriak aplikatuz hezkuntzan landu beharreko edukiak mailakatu .		
Klaustrokideekin Hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren oinarriak aplikatuz hezkuntzan landu beharreko edukiak mailakatzeko formazioa.	<b>Betetze maila</b>	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Hobetzeko proposamenak</b>
Ziklo bileretan,oinarri diskurtsiboak kontuan izanez, hizkuntzen ikas prozesuan landu beharreko edukiak aukeratu, azken emaitzan aplikatuz.			

## 2018-2019 IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)

### IKASTEKO IRAKURRI.ULERMENA HOBETZEKO ESTRATEGIAK GELAN.

#### HAUR HEZKUNTZA

Ikaslearen jabeakuntza-prozesu naturalari laguntzea da helburu nagusia. Haurrak ez daude hutsik. Oso sakonak diren ideia, hipotesi eta teoria pertsonalez beterik daude. Hipotesi horiek garatzen, egiaztatzen, osatzen eta poliki-poliki aldatzen doaz, idatziaren kode konbentzionala aurkitzera iritsi arte.

FASEAK	EZAUGARRIAK
IDAZTEA eta MARRAZTEA ez da gauza bera	Grafismo primitiboak, zirriborroak, biribilak, makilatxoak, etab.
	Alineazio horizontala, esker-eskuin, letraren bat agertzen hasten da.
BEREIZITAKO IDAZKETAK (ideografikoa)	Letren erabilera. Letra multzo jakin baten errepikapena esanahi desberdinekin.
	Letren konbinazio desberdinak esanahi desberdinekin. Izenaren letren konbinazio guztia idazteko.
IDAZKETA SILABIKOA	Lotura fonetikoa. Soinu bat (silaba) letra bat. Edozein letra.
	Silaba bakoitza bere bokalez adierazia.
	Silaba bakoitza bokal eta /edo kontsonantez adierazia.
IDAZKETA-SILABIKO-ALFABETIKOA	Silaba bakoitza letra bat baino gehiagoz adierazia.
IDAZKETA ALFABETIKOA	Fonema/grafia oinarrizko lotura eginda.

Idatzizko egoera nagusiak Haur Hezkuntzan	
Testu bildumak	Abestiak Olerkiak Informazio-txartelak
Gaien ingurukoak	Gutunak, Instrukzioak, Prozesuak, Komunikabideen behaketa, Ontzi komertzialen behaketa, Bildumak, Jarduerak zenbakiekin



	Biografiak Lan-dosierrak Errezetak
--	--

## **LEHEN HEZKUNTZAKO 1. eta 2. Mailak**

Irakurketa lantzeko jarduerak hiru fasetan bereizten dira. Hasierako fasean, irakurri bitartean eta irakurri ondoren ariketa desberdinak antolatzen dira ondorengo helburuekin: testura hurbiltzeko, testua irakurri bitartean irakurritako informazioa sakontzeko eta irakurri ondoren ulermen orokorra ziurtatzeko.

### **1- IKASTEKO IRAKURRI**

#### **Bi mailetako aspektu komunak**

##### **• Irakurri aurretik**

- Izenburua irakurri eta aurrezagutzak aktibatu.
- Marrazkia ondo aztertu eta hipotesiak egin.
- Denon artean aztertu.

##### **• Irakurri bitartean**

- Umeak banan banan ozenki irakurtzen dute dagokion zatia.
- Berririo irakurri eta beharrezkoa bada hirutan.

##### **• Irakurri ondoren**

- Galderak eginez, ulermena frogatzen da eta laburpena egiten da.
- Etxerako gutxienez 15 minutuko irakurketa bidaltzen da

#### **2. mailan gehitzen diren ekintzak**

- Testuaren egituraren behaketari denbora eskaintzen zaio.
- Hitz ezezagunak azpimarratzen dira.
- Etxetik prestatutako ipuin zati bat gelara ekartzen dute eta denon aurrean irakurtzen dute.
- Irakurketa eta ulermena hobetzeko gelak bikoizten dira astean bi saiotan.

## **BIGARREN ZIKLOKO 3. eta 4. MailaK**

Irakurketa lantzeko jarduerak hiru fasetan bereizten dira. Hasierako fasean, irakurri bitartean eta irakurri ondoren ariketa desberdinak antolatzen dira ondorengo helburuekin: testura hurbiltzeko, testua irakurri bitartean irakurritako informazioa sakontzeko eta irakurri ondoren ulermen orokorra ziurtatzeko.

### **1. IKASTEKO IRAKURTZEN**

- **Irakurri aurretik**

- Marrazkia behatu eta interpretatu.
- Testuaren noranzkoaren hipotesiak bota
- Izenburua aztertu

- **Irakurri bitartean**

Modu ezberdinetan egiten da:

#### **A**

- CD-tik entzun edo irakasleak irakurri intonazioa, geldiuneak ... nabarmenduz.
- Ikasleek irakurri ozenki ( txandaka puntutik puntura / txandaka paragrafoka)
- Paragrafoen esanahia atera.

#### **B**

- Ikasleek irakurri ahots-goran ( txandaka puntutik puntura / txandaka paragrafoka) zuzenean
- Hiztegia landu

- **Irakurri ondoren**

- Laburpena ahoz
- Ulermen ariketak gehien bat ahoz
- Beraien kabuz irakurri eta galderak idatziz erantzun .

### **2. CURRICULUM ARLOAK**

#### **Natura eta Gizarte**

- Argazkiak eta izenburua aztertu eta gero, aurrezagutzak adierazi.
- Testua denon artean irakurri eta azalpenak eman ahoz.
- Irakasleak eskemak eman eta landu.

## Science

4. Mailan Science ikasgaia ingelesez lantzen da; eta ikasleek esku artean gai desberdinekin lotutako azalpen testu ugari izaten dituzte. Hauek entzun eta irakurri egiten dira, eta ulermena lantzeko, eskemak, eta beste modu askotako ariketak egiten dira: hutsuneak bete, lotzeko ariketak, erantzun sinpleekin esaldiak erantzun, prozesuak azaltzeko esaldiak ordenatu ...

Irakurritako testuak hobeto ulertzeko: irudiak, bideoak ikusten dituzte, abestiak entzuten dituzte...

### **HIRUGARREN ZIKLOKO 5. eta 6. Mailak**

Irakurketa lantzeko jarduerak hiru fasetan bereizten dira. Hasierako fasean, irakurri bitartean eta irakurri ondoren ariketa desberdinak antolatzen dira ondorengo helburuekin: testura hurbiltzeko, testua irakurri bitartean irakurritako informazioa sakontzeko eta irakurri ondoren ulermen orokorra ziurtatzeko.

#### **1- IKASTEKO IRAKURTZEN**

Testu mota desberdinak irakurtzen dira modu desberdinetan: ozenki edo bakarka isilean, irakasleak ozenki

- **Irakurri aurretik**
  - Irakurri baino lehen hipotesiak formulatzen dira, izenburua eta marrazkiei begiraturaz.
- **Irakurri bitartean**
  - Irakurtzen goazen ahala testuari buruzko galderak egin. Ahalik eta zehar galdera gehien egiten dira; bai edukiari buruzkoak zein hiztegiari buruzkoak.
- **Irakurri ondoren**
  - Idatzizko ulermen frogak egiten dira.
  - Ahozko edo idatzizko laburpenak egiten dira.

#### **2- CURRICULUM ARLOAK**

**Gizarten** testuak irakurtzen ditugu gero eskemak edota laburpenak egin ahal izateko. Horretarako garrantzitsuena azpimarratu eta informazioa ateratzeko teknika lantzen dugu.

**Science** ikasgaia ingelesez lantzen da; eta ikasleek esku artean gai desberdinekin lotutako azalpen testu ugari izaten dituzte.

Hauek entzun eta irakurri egiten dira, eta ulermena lantzeko, eskemak, eta beste modu askotako ariketak egiten dira: hutsuneak bete, lotzeko ariketak, erantzun sinpleekin esaldiak erantzun, prozesuak azaltzeko esaldiak ordenatu ...

Irakurritako testuak hobeto ulertzeko, umeei hainbat bideo ikusten

dituzte gelan, abestiak entzuten dituzte

**Matematikan** buruketen enuntziatuen ulermena lantzen da datuak eta galdera ateraz.

## **IRAKURKETAREN TRATAERA ATZERRIKO HIZKUNTZAN**

### **LEHEN HEZKUNTZAKO 1. eta 2. mailak**

Maila hauetan lantzen den irakurketa, prozesu honetan murgiltzeko hastapen bat bezala ulertu daiteke.

1. Mailan lantzen den irakurketa hitzen irakurketan zentratzen da, eta horretara heltzeko jarraitzen den bidea honako hau da:
  - 1- Irakaslearen eta audio materialen entzumena.
  - 2- Entzundakoaren errepikapena.
  - 3- Hitz solteen irakurketa.

Maila honetan dauden umeez, ez dute normalean beraien lehen hizkuntzan irakurketa prozesua larregi menperatzen. Ingelesaren irakurketak arau desberdinak jarraitzen dituzenez, ez da komenigarria ikusten, errepikapena ez den beste metodo bat erabiltzea.

Pegatinak irakurketa lantzeko material baliagarri bezala erabiltzen dira.

2. Mailan ere goian aipatutako prozesua jarraitzen da:
  - 1- Irakaslearen eta audio materialen entzumena.
  - 2- Entzundakoaren errepikapena.
  - 3- Hitz solteen eta esaldi sinpleen irakurketa.

Maila honetan, hitz solteez aparte istorio laburrak (komikiak barne) txertatzen dira, bertan oso esaldi laburrak ikasten dira. Hemen ere, garrantzi gehien hitz solteen errepikapenari eta irakurketari ematen zaio, baina esaldietan ere murgiltzen dira.

Irakurketa egiteko, pegatinak, abestiak, eta ariketa dinamikoak erabiltzen dira.

Ez 1. mailan ezta 2. mailan ere, liburutegia ez da erabiltzen programatutako ikas jarduerarik egiteko, ezta irakurzaletasuna garatzeko asmoz ere.

### LEHEN HEZKUNTZAKO 3. eta 4. mailak

- Maila bi hauetako funtzionamendua antzekoa da, eta metodoan garrantzi asko ematen zaio irakurketa atalari. Ondoko atal hauetan lantzen da irakurketa:
- Gaiaren eta hiztegiaren aurkezpena egiten da irakurritz. Hiztegia aurkezteko, abesti bat daukate eta entzuteaz aparte, hitzak irakurtzen eta errepikatzen dituzte.3. eta 4. Mailan “Word cards”-ak erabiltzen dira, hiztegiaren irakurketan laguntzeko.
- Istorioak agertzen dira komiki eran. Horrez gain, unitate bakoitzean ingurunearekin lotutako eta ingeles kulturarekin lotutako artikulua ere irakurtzen dira. Hauek guztiak ere, lehenengo entzun egiten dira, errepikatu gero eta azkenik bakarka irakurtzen dute bide batez ahoskera landuz.
- Istorioa eta artikulua ulertu diren jakiteko, ariketa batzuk planteatzen dira: egia edo gezurra, galdera erantzunak, lotzeko ariketak, asmakizunak ...
- Unitate guztietan fonetika atal bat dago, bertan soinu desberdinak desberdintzen ikasten da olerki edo erritmo antzeko esaldiekin. Soinuak testuinguruan eta irudien laguntzarekin ilustratuta lantzen dira, eta hauek irakurtzen dituztenean soinu desberdinak kolore desberdinez azpimarratuta ikusten dituzte, horrela hauen irakurketan kontzientzia hartzeko.
- Abesti baten entzumena eta irakurketa lantzen da. Berriz ere errepikapena erabiltzen da horretarako. Abestien ulermena lantzen da ahozko galderen bidez.
- Azkenik READING CORNER deitutako atal bat dago unitate bakoitzean eta landutakoarekin lotuta. Bertan, testu mota simple desberdinak irakurtzen dira: seinaleak, posterrak, errezeta sinpleak, poemak, ... Hauek ere entzun eta ondoren irakurri egiten dira, baina ez da ariketarik planteatzen hauen gainean. Testu mota desberdinen ezagupenarekin lotu daiteke atal hau.”READING FOR PLEASURE” komiki tira bat.

**4. MAILAN**, ebaluazio diagnostikora begira, liburuxka bat lantzen da umeekin. Liburuxka honetan testu mota desberdinen irakurketa lantzen da; bertan galdera erantzunen bidez (a,b,c) ulermenean trebatzen dira ikasleak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO 5. eta 6. mailak

Maila bi hauetako funtzionamendua berdin berdina da irakurketari dagokionez. Testu pila bat izaten dituzte beraien esku:

- Gaiaren eta hiztegiaren aurkezpena egiten da irakurriz. Hiztegia aurkezteko, rap bat daukate eta entzuteaz aparte, hitzak irakurtzen eta errepikatzen dituzte. Word cards"-ak erabiltzen dira, hiztegiaren irakurketan laguntzeko. Gaiaren aurkezpena egiteko testu mota desberdin bat sartzen da (publizitate testu bat, gida turistiko bat...) Hauen ulermena lantzeko asmoz bai Pupil's bookean eta Activity Bookean ariketa desberdinak izaten dituzte (galdera erantzunak; egia-gezurra, lotzeko ariketak...)
- Gai guztietan istorioak agertzen dira komiki eran. Horrez gain, unitate bakoitzean ingurunearekin, edo gizartearekin eta ingeles kulturarekin lotutako artikulua ere irakurtzen dira. Hauek guztiak ere, lehenengo entzun egiten dira, errepikatu gero eta azkenik bakarka irakurtzen dute bide batez ahoskera landuz. Guzti hauen ulermena lantzeko ahozko zein idatzizko ariketak planteatzen dira.
- Gramatika lantzen den ataletan ere, gramatika puntu hauek testuen barruan txertatzen dira; ikasleek testuinguru batekin lotzeko gramatika puntu bakoitza.
- Unitate guztietan fonetika atal bat dago, bertan soinu desberdinak desberdintzen ikasten da olerki edo erritmo antzeko esaldiekin. Soinuak testuinguruan eta irudien laguntzarekin ilustratuta lantzen dira, eta hauek irakurtzen dituztenean soinu desberdinak kolore desberdinez azpimarratuta ikusten dituzte, horrela hauen irakurketan kontzientzia hartzeko.
- Abesti baten entzumena eta irakurketa lantzen da. Berriz ere errepikapena erabiltzen da horretarako. Abestien ulermena lantzen da ahozko galderen bidez.

Horrez gain, gelan landutako testu desberdinetan sakontzeko ere, ulermen ariketa desberdinak online eran egiten dira: laburpenak ordenan jarri, hiztegia marrazkiekin lotu, istorioak osotzeko paragrafoak ordenatu, abestietan hutsuneak bete

2019-2020IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)

IRAKURZALETASUNA GELAN,ESKOLAN ETA ESKOLATIK KANPO

HAUR HEZKUNTZA

IRAKURKETA BULTZATZEKO EKINTZAK.

NON	Irakurketa bultzatzeko ditugun ekintzak	Irakurketa bultzatzeko proposamen berriak	Baliabide eta beharrak
ARLOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako liburutegirako hileroko talde batek gustuko dituen ipuinak ekarri, bakoitzak nahi dituzten hartu eta irakurtzeko.</li> <li>• Irakaslea kontalari bezala beste gela batera gustuko duen ipuina kontatzera</li> <li>• Liburu-egunerako proposatu umeei gehien gustatzen zaien ipuina ekartzea</li> <li>• (apurka-apurka ipuinak kontatzen joan)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako Liburutegia: irizpideak erabilerarako eta girotzeko, atontzeko.                     <ul style="list-style-type: none"> <li>-Liburuak era erabilgarrian antolatu eta aurkeztu.</li> </ul> </li> <li>• Irakaslea irakurle: irizpideak irakurketa horren helburuak bereizteko.                     <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hizkuntza gelan irakasleak, astean behin, ipuina kontatu.</li> </ul> </li> <li>• Ikasleak irakurle.                     <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hizkuntza gelan ikasleak (goiko zikloetakoak) noizean behin ipuinak kontatu</li> </ul> </li> <li>• Jardueren sistematizazioa adostu eta horretarako irizpideak.                     <ul style="list-style-type: none"> <li>-Irakasleak irakurle astean behin.</li> <li>-Ikasleak irakurle noizean behin.</li> </ul> </li> </ul>	Liburutegia hornitu.



<b>ESKOLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren erabilera aldiro (mailegua)</li> <li>• Ipuin kontalaria</li> <li>• Idazleak eskolan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegitik, maileguaz aparte, zerbait bultzatu.</li> </ul>	
<b>ESKOLAZ KANPO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuin Lehiaketa</li> <li>• Herriko liburutegia erabiltzera bultzatu</li> <li>• Gelako liburuak etxera eroan</li> <li>• Idazlan koadernoak</li> <li>• Antzerki Tailerrak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiak inplikatzeko jarduerak. -Gernikako liburutegian,ostiraletan,egoten den ipuin kontalariaren informazioa familiei emailez bidali.</li> </ul>	<p>-Informazioa jaso Gernikako Kultur Etxetik eta inguruko herrietatik.</p>

## 1.ZIKLOA

### IRAKURKETA BULTZATZEKO EKINTZAK.

NON	Irakurketa bultzatzeko ditugun ekintzak	Irakurketa bultzatzeko proposamen berriak	Baliabide eta beharrak
<b>ARLOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako liburutegia.</li> <li>• Ikasleen liburuak irakasleak gelan irakurri.</li> <li>• Egunero ipuina kontatu.</li> <li>• Tertulia dialogikoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako Liburutegia: irizpideak erabilerarako eta girotzeko, atontzeko.               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburuak egokitu</li> <li>- Ipuinak SAAC-ekin egokitu.</li> </ul> </li> <li>• Irakaslea irakurle: irizpideak irakurketa horren helburuak bereizteko.               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleak aukeratu irakurriko duen liburua edo ipuina</li> <li>- Txandakatu ipuina kontatzen eta liburua irakurtzen</li> <li>- Umeen iritziak galdetu eta kontutan hartu</li> </ul> </li> <li>• Jardueren sistematizazioa adostu eta horretarako irizpideak.               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunero 10 minutu</li> <li>- Errekreatik sartzean edo eguerdian sartzean</li> <li>- Ikasleak egon daitezke edozein lekutan entzuten: mahaian eserita, besaulkietan, lurrean...)</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburuak egokitu</li> <li>- Ipuinak SAAC-ekin egokitu</li> <li>- Umeek ekarri etxetik liburu bat aste baterako.</li>   <li>- Arau bat: irakurketan ezin da hitz egin</li> <li>- Ikasleen portaera aztertu</li>   <li>- Erosotasuna lortzen saiatu: besaulkiak, alfombra bat, kuxinak.</li> </ul>

<b>ESKOLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren erabilera aldiro (mailegua)</li> <li>• Ipuin kontalaria</li> <li>• Idazleak eskolan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegitik, maileguaz aparte, zerbait bultzatu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nagusiek kontatu ipuinak txikiei.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Borondatez</li> <li>- Aukeratu ipuinak: errazak</li> <li>- Moldatu ipuinak: marrazkia aurretik eta letra atzetik.</li> </ul>
<b>ESKOLAZ KANPO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuin Lehiaketa</li> <li>• Herriko liburutegia erabiltzera bultzatu</li> <li>• Gelako liburuak etxera eroan</li> <li>• Idazlan koadernoak</li> <li>• Antzerki Tailerrak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiak inplikatzeko jarduerak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrietako liburutegietako txartelak egiteko erraztu eskolatik.</li> <li>- Gelako liburutegirako etxetik ekarri liburu bat astean, txandakatuz.</li> </ul> </li> </ul>	

## 2.ZIKLOA

**IRAKURKETA BULTZATZEKO EKINTZAK:** bigarren zikloan helburu nagusia irakurketa-ulermena lantzea eta ondo finkatzea da, irakur zaletasuna landu ahal izateko

NON	Irakurketa bultzatzeko ditugun ekintzak	Irakurketa bultzatzeko proposamen berriak	Baliabide eta beharrak
-----	---	---	------------------------

<b>ARLOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelako liburutegia</li> <li>- Irakasleak ozenki irakurri, euren aurrean antzestu</li> <li>- Tertulia dialogikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelako Liburutegia: irizpideak erabilerarako eta girotzeko, atontzeko.</li> <li>- “Liburu gomendagarriak”, 3. eta 4.mailakoentzat zerrenda egin.</li> <li>- Liburu berriak aurkeztu</li> <li>- Ikasleek ere euren etxeetatik ekartzea eta denbora mugatu batean gelan izatea.</li> <li>- Irakurtzeko testu mota desberdinak definitu (maila bakoitzarentzat egokienak) Testu laburrak eta erakargarriak.</li> <li>- Irakaslea irakurle: irizpideak irakurketa horren helburuak bereizteko.</li> <li>- Hizkuntza saioetan tartetxo bat hartu</li> <li>- Txandakatu testu mota desberdinak</li> <li>- Ikasleek ere eurek irakurritako libururen bat kontatzea edo irakurtzea besteen aurrean</li> <li>- Irakurri duten liburuari buruz iritzia eman.</li> <li>- Jardueren sistematizazioa adostu eta horretarako irizpideak.</li> <li>- Arauak: non, nola jesarrita, nola egon Irakurtzen dagoen bitartean isilik Irakurtzen dagoen bitartean ezin da galderarik egin.</li> <li>- Hizkuntza saioetan 10 minutu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukeratu batzuk liburu gomendagarrietatik, eta erosi gelako liburutegian berriak ere izateko.</li> <li>- Kutxa aproposa den bat erosi, liburuak nolakoak diren ikusi ahal izateko eta aukeraketa errazagoa egiteko.</li> </ul>
---------------	--	---	---

<b>ESKOLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburutegiaren erabilera aldiro (mailegua)</li> <li>- Ipuin kontalaria</li> <li>- Idazleak eskolan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburutegian, maileguaz aparte, zerbait bultzatu</li> <li>- Ikasleek hamabostero eskolako liburutegira joatea.</li> <li>- 3. Eta 4.mailakoentzat liburu gomendagarrien zerrenda egin.</li> <li>- Liburu berriak aurkeztu.</li> <li>- Irakasleak bertan irakurri ikasleei liburu berri batzuk. Giro lasaia sortuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sailkatuta izan 3. eta 4.mailarako proposenak direnak.</li> <li>- Toki apropos bat aukeratu eta liburu berriak han jartzea.</li> <li>-Irakaslea ikasleei irakurtzen dagoen bitartean, hauek entzuteko toki apropos bat izatea,..</li> </ul>
<b>ESKOLAZ KANPO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ipuin Lehiaketa</li> <li>- Herriko liburutegia erabiltzera bultzatu</li> <li>- Gelako liburuak etxera eroan</li> <li>- Idazlan koadernoak</li> <li>- Antzerki Tailerrak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiak inplikatzeko jarduerak</li> <li>- Inguruko liburutegietatik, jarduera desberdinei buruz jasotzen dugun informazioa familiei zabaltzea</li> </ul>	

### 3.ZIKLOA

#### IRAKURKETA BULTZATZEKO EKINTZAK

NON	Irakurketa bultzatzeko ditugun ekintzak	Irakurketa bultzatzeko proposamen berriak	Baliabide eta beharrak
ARLOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako liburutegia osatu (etxetik ekarritako liburuekin)</li> <li>• Irakasleak irakurri pasarteka taldean, ikasleak entzule.</li> <li>• Liburu baten pasartea aukeratu, zati bat etxera eraman eta praktikatu. Ostean, taldean ozenki irakurri, txandaka.</li> <li>• -Komikia irakurri: pertsonaiak banatuta eta intonazioa zainduta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelako Liburutegia: irizpideak erabilerarako eta girotzeko, atontzeko.</li> <li>- Gelako liburuak berritu.</li> <li>- Irakaslea irakurle: irizpideak irakurketa horren helburuak bereizteko.</li> <li>- Asteazken zehar noizbehinka testu zati bat irakurri jakin mina eusteko.</li> <li>- Jardueren sistematizazioa adostu eta horretarako irizpideak.</li> </ul>	<p>Liburu berriak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-National Geografik.</li> <li>-Historia.</li> <li>-Zientzia.</li> <li>-Erdaraz.</li> <li>-Ingeleseaz.</li> </ul>
ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren erabilera aldiro (mailegua)</li> <li>• Ipuin kontalaria</li> <li>• Idazleak eskolan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegian, maileguaz aparte, zerbait bultzatu</li> <li>• Haur Hezkuntzako ipuinak kontatu.</li> <li>• Irakasleak ipuinak kontatzea.</li> </ul>	

<b>ESKOLAZ KANPO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuin Lehiaketa</li> <li>• Herriko liburutegia erabiltzera bultzatu</li> <li>• Gelako liburuak etxera eroan</li> <li>• Idazlan koadernoak</li> <li>• Antzerki Tailerrak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiak inplikatzeko jarduerak.</li> <li>• Herriko liburutegira joan eta hortik liburuak ekarri.</li> </ul>	
--------------------------	---	---	--



2019-2020IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)  
 GOZAMENA EBALUATZEKO INDIKADOREAK

1.ZIKLOA

IKASLEA:

MAILA:

	GOZAMEN MAILA ERAKUSTEN DUTEN INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
JARDUERA BAINO LEHEN	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proposamenaren aurreko jarrera/erreakzioa: positiboa, poztasuna,..</li> <li>· Urduritasuna, hasi nahia,..</li> </ul>		

<b>JARDUERA BITARTEAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Jarduerari dagokion emozioa adierazten du(poza,barrea,hunkipena,beldurra,zirrara,..)</li> <li>-Gorputz adierazpena.</li> <li>· Parte hartzeko modua: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Arauk errespetatzea</li> <li>-Amaitu nahi ez izatea edo bukaera luzatu.</li> </ul> </li> </ul>		
<b>JARDUERAREN OSTEAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gozatu duela adieraztea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guk galdetuta.</li> </ul> </li> <li>-Errepikatu nahi izatea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guk proposatuta.</li> </ul> </li> <li>-Esperientzia luzatu/berreskuratu egitea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Esperientzia horretako elementuekin jolasean jarraitu.</li> <li>▪ Esperientziari buruz hitz eginez (eskolan,etxean,..)</li> </ul> </li> </ul>		

## 2.ZIKLOA

IKASLEA:

MAILA:

	GOZAMEN MAILA ERAKUSTEN DUTEN INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
<b>JARDUERA BAINO LEHEN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proposamenaren aurreko jarrera: positiboa,poztasuna,..</li> <li>· Jakin-mina,galderak egitea jarduerari buruz.</li> </ul>		
<b>JARDUERA BITARTEAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Jarduerari dagokion emozioa adierazten du</li> <li>·</li> <li>-Hizkuntz adierazpena(esatea).</li> <li>· Parte hartzeko modua:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Iniziatibarik duen</li> </ul> </li> <li>-Motibazioa,inplikazioa:</li> </ul>		

<b>JARDUERAREN OSTEAN</b>	<p>-Gozatu duela adieraztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guk galdetuta.</li> </ul> <p>-Errepikatu nahi izatea</p> <p>-Jarraitzeko gogoz gelditu bada.</p>		
---------------------------	--	--	--

### 3. ZIKLOA

IKASLEA:

MAILA:

	GOZAMEN MAILA ERAKUSTEN DUTEN INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
<b>JARDUERA BAINO LEHEN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proposamenaren aurreko jarrera/erreakzioa:positiboa,poztasuna,..</li> <li>· Jakin-mina,galderak egitea jarduerari buruz.</li> <li>· Urduritasuna,hasi nahia,..</li> </ul>		

<p style="text-align: center;">JARDUERA BITARTEAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Jarduerari dagokion emozioa adierazten du (poza, barrea, hunkipena, beldurra, zirrara,..)</li> <li>-Gorputz adierazpena.</li> <li>-Hizkuntz adierazpena (esatea).</li> <li>· Parte hartzeko modua:</li> <li>-Iniziatiba: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gauzak berez egitea, guk eragin beharrik gabe.</li> <li>▪ Proposamenak egiten ditu, bide berriak arakatzeko ditu.</li> </ul> </li> <li>-Motibazioa, inplikazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskatutakoa baino gehiago egitea.</li> <li>▪ Eskatutakoan esfortzu handia egitea (elementuen kopuru handia, detaile asko, e.a.)</li> <li>▪ Sakondu nahi izatea, jakin nahi izatea.</li> </ul> </li> <li>-Amaitu nahi ez izatea edo bukaera luzatu.</li> </ul>		
<p style="text-align: center;">JARDUERAREN OSTEAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gozatu duela adieraztea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guk galdetuta.</li> <li>▪ Guk galdetu gabe.</li> </ul> </li> <li>-Errepikatu nahi izatea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guk proposatuta.</li> <li>▪ Guk proposatu gabe.</li> </ul> </li> <li>-Esperientzia luzatu/berreskuratu egitea: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Esperientzia horretako elementuekin jolasean jarraitu.</li> <li>▪ Esperientziari buruz hitz eginez (eskolan, etxean,..)</li> </ul> </li> </ul>		

2019-2020IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)  
 ZALETASUNA EBALUATZEKO INDIKADOREAK

**1.ZIKLOA**

**ZALETASUNA EBALUATZEKO INDIKADOREAK**

**IKASLEA:**

**MAILA.**

	INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
GELAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IRAKURKETA TXOKOA (DERRIGORREZKO JARDUERA BADA)                             <ul style="list-style-type: none"> <li>· Nola dago gogoz edo aspertuta.</li> <li>· Irakurketa batean kontzentratua ala etengabe joan-etorrian apaletara.</li> </ul> </li> <li>• ERABILERA ASKEA(BORONDATEZ JOATEKO AUKERA DUTENEAN)                             <ul style="list-style-type: none"> <li>· MAIZTASUNA:Zenbatetan joaten den.</li> <li>· Zenbat denbora egoten den jarduera horretan.</li> </ul> </li> </ul>		

<p style="text-align: center;">ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Maiztasuna:zenbatetan joaten den (epe tarteak jarri).</li> <li>• Zenbat denbora egoten den.</li> <li>• Zer egiten egoten den:lanak,gelarako liburuak bila, borondatez irakurtzen, liburuak kuxkuxeatzen.</li> <li>• Zenbatetan hartzen dituzten liburuak eramateko.</li> <li>• Zenbat denbora edukitzen dituzten liburuak.</li> <li>• Ikasleen irakurketak nolako zabalkundea duten haien artean: -Liburu bera hainbat ikasleek eskatzea.</li> </ul>		
--	---	--	--

## 2.ZIKLOA

**ZALETASUNA EBALUATZEKO INDIKADOREAK**

**IKASLEA:**

**MAILA.**

	INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
GELAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IRAKURKETA TXOKOA (DERRIGORREZKO JARDUERA BADA)               <ul style="list-style-type: none"> <li>· Irakurketa batean kontzentratua eta gogoz ala aspertuta eta etengabe joan-etorrian apaletara.</li> </ul> </li> <li>• ERABILERA ASKEA(BORONDATEZ JOATEKO AUKERA DUTENEAN)</li> </ul>		
ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• MAIZTASUNA::</li> <li>• Zenbatetan hartzen dituzten liburuak etxera eramateko.</li> <li>• Zenbat denbora edukitzen dituzten liburuak.</li> <li>• Ikasleen irakurketak nolako zabalkundea duten haien artean:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Liburu bera hainbat ikasleek eskatzea.</li> <li>-Idazle beraren beste liburuak eskatzea.</li> </ul> </li> </ul>		



### 3.ZIKLOA

#### ZALETASUNA EBALUATZEKO INDIKADOREAK

#### IKASLEA:

#### MAILA.

	INDIKADOREAK	JARRERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
GELAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IRAKURKETA TXOKOA (DERRIGORREZKO JARDUERA BADA)               <ul style="list-style-type: none"> <li>· Nola dago gogoz edo aspertuta.</li> <li>· Irakurketa batean kontzentratua ala etengabe joan-etorrian apaletara.</li> </ul> </li> <li>• ERABILERA ASKEA(BORONDATEZ JOATEKO AUKERA DUTENEAN)               <ul style="list-style-type: none"> <li>· MAIZTASUNA:Zenbatetan joaten den.</li> <li>· Zenbat denbora egoten den jarduera horretan.</li> <li>· Gelako liburutegira joateko arrazoiak.</li> </ul> </li> </ul>		

<p style="text-align: center;">ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN ERABILERA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Maiztasuna:zenbatetan joaten den (epe tarteak jarri).</li> <li>• Zenbat denbora egoten den.</li> <li>• Zer egiten egoten den:lanak,gelarako liburuak bila,borondatez irakurtzen,liburuak kuxkuxeatzen.</li> <li>• Zenbatetan hartzen dituzten liburuak eramateko.</li> <li>• Zenbat denbora edukitzen dituzten liburuak.</li> <li>• Haien interesak asetzeko galderak egiten dizkieten arduradunari.</li> <li>• Ikasleen irakurketak nolako zabalkundea duten haien artean: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Liburu bera hainbat ikasleek eskatzea.</li> <li>-Idazle beraren beste liburuak eskatzea.</li> </ul> </li> </ul>		
--	--	--	--

## **2019-2020IKASTURTEAN (hartutako erabakiak)**

### **LIBURUTEGIKO PROTOKOLOA**

#### **BARRUTIA IKASTETXEKO LIBURUTEGIKO PROTOKOLOA**

##### **SARRERA**

Barrutia Ikastetxeko liburutegia irakurtzeko, liburuen mailegua eta lan pertsonalak, zein taldekoak egiteko eremua da.

Liburutegiak Ikastetxeko lehen hezkuntzako ikasleen erregistro bat dauka eta ikasle bakoitzari liburutegiko txartela ematen zaio. Horretarako ABIES programa erabiltzen da, honek ale bakoitzeko barra-kode bat sortzen du eta beste barra-kode bat irakurlearen txartelerako. Irakurle txartela ikasle bakoitzari ikasturte hasieran ematen zaio. Horrela maileguak automatizatzen dira.

##### **ESKOLA LIBURUTEGIAREN HELBURUAK**

- Irakurzaletasuna sustatzea.
- Ikasleek liburutegiaren erabilera ikastea.
- Liburutegiko baliabideak eskola barruan eta kanpoan erabiltzea.
- Liburu berriak erostea eta ABIES informatika programa erabiliz liburuen katalogazioa egitea.
- Irakurketa animazio ekintzak bideratzea.

##### **ARDURADUNAK**

- Liburutegiko arduradunak urtero aukeratuko dira irakasle bakoitzak dituen ordu librean arabera.

##### **LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK**

- Liburuak eta gainerako materiala zaindu. Hartu eta gero bere lekuan utzi.
- Liburutegian, inor ez molestatzeko, isiltasuna mantendu behar da.
- Bi ale mailegatzen dira gehienez
- Maileguek hamabosteroko epea izango dute, beste hamabost egunetan mailegua berritu ahal izango delarik, aurretiko eskaera gauzatzen bada.
- Ez da inolako materialik mailegatuko aurretik utzitakoa itzultzen ez den bitartean.
- Janaria eta edaria sartzea erabat debekatua dago.
- Portaera egokia izatea eskatuko da.
- Hondatu edo galdu den materiala ordezkatu da edo bestela, bere koste ekonomikoa ordaindu.

- Liburutegian eskolako portatilak erabiltzeko irakasleak liburutegia zaintzen dagoen pertsonari ahoz edo idatziz komunikatu behar dio.
- Portaerari eta materialen zainketari dagozkien arau minimoak errespetatu ez, eta ohartaraziak izan diren pertsonak, liburutegia erabiltzeko aukera galdu ahal izango dute.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9:00-10:00					
10-11					
11-11:30	JOLASORDUA	JOLASORDUA	JOLASORDUA	JOLASORDUA	JOLASORDUA
11:30-12:30					
12:30-14:00	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA	BAZKARIA
14:00-14:50					
14:50-15:40					
15:40-16:40					

### ORDUTEGIA

- Goizeko jolas orduan: 11:00etatik 11:30etara. Egun bakoitzean irakasle arduradun bat egongo da.
- Jan eta gero:13:30etatik 14:00etara.Arduraduna jantokiko zaintzaile bat izango da.
- Irailean eta ekainean,ordutegi trinkoa dagoen bitartean,liburutegia itxita egongo da.
- Liburuen mailegua egiteko urtero ordutegia bat adostuko da.

### JARDUERAK

- Ikasturte hasieran ikasleei liburutegiko txartel berriak egitea.
- Liburu berriak katalogatzea eta zaharrak ,ahal den neurrian, konpontzea.
- Liburutegiko erabiltzaile berriei liburutegiko maileguen sistema eta funtzionamendu arauak azaltzea.Horretarako tutoretza saioak erabiliko dira.
- Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak burutzea:ipuin kontalariak,liburuen aurkezpenak,idazleak eskolan programa,ikasleen arteko ipuin kontalariak,Gabonetan familiei oparitzeko liburuk gomendatu,familia inguruan irakurzaletasuna sustatzeko gomendioak proposatzea.

## **EBALUAZIOA**

- Liburutegia erabili duten ikasle kopurua.
- Ikasleei liburutegiko arauak azaltzeko egin den saio kopurua.
- Irakurzaletasuna bultzatzeko egin diren ekintzak.
- Familiei bidali zaizkien gomendioak .